

# EAEko kultura programazioaren azterketa

2023ko lehen hiruhilekoa



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA





# Aurkibidea

<b>0. AURKEZPENA</b>	<b>3</b>
<b>1. FITXA TEKNIKOA</b>	<b>4-6</b>
Azterketa unibertsoa	5
Ohar metodologikoak	6
<b>2. EKITALDIEN AZTERKETA</b>	<b>7-9</b>
Datuen laburpena	8
Ekitaldien banaketa, motaren arabera	9
<b>3. KONTZERTUAK</b>	<b>10-14</b>
Ekitaldiak, taldeak eta sarrerren prezioa	11
Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera	12
Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera	13
Kontzertuen banaketa, musika generoaren arabera	14
<b>4. ANTZERKIA</b>	<b>15-19</b>
Ekitaldiak, emanaldiak eta sarrerren prezioa	16
Antzerki emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	17
Antzerki emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera	18
Antzerki emanaldien banaketa, antzerki generoaren arabera	19
<b>5. DANTZA</b>	<b>20-23</b>
Ekitaldiak, emanaldiak eta sarrerren prezioa	21
Dantza emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	22
Dantza emanaldien banaketa, dantza generoaren arabera	23
<b>6. BERTSOLARITZA</b>	<b>24-25</b>
Ekitaldiak eta lurraldearen araberrako banaketa	25
<b>7. ERAKUSKETAK</b>	<b>26-27</b>
Ekitaldiak eta lurraldearen araberrako banaketa	27



# 0- Aurkezpena

2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean programatutako kultura ekintzen azterketa

2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean EAEn programatutako kultura ekitaldien berri ematen du txosten honek.

Bi ataletan banatuta dago azterketa. Batetik, **kultura programazioaren** egoera erakusten da **bere osotasunean**, ekitaldi moten arabera eta 2022ko epealdi bereko datuekin alderatuta. Bestetik, **bost kultura esparru zehatzen kultura programazioaren errealitatean** sakontzen da: **Musika, Antzerkia, Dantza, Bertsolaritza eta Erakusketak**.



# 1. Fitxa teknikoa

---

Azterketa honetarako erabilitako  
unibertsoa





# AZTERKETA UNIBERTSOA

## INFORMAZIO ITURRIA

**Kulturklik**  
([www.kulturklik.euskadi.eus](http://www.kulturklik.euskadi.eus))

## AZTERTUTAKO UNIBERTSOA

**3.864 ekitaldi**  
Unibertso osoa, ez lagin bat

## JASOTAKO EKITALDI MOTAK

**14 ekitaldi mota**  
Kontzertuak, antzerkia, erakusketak, dantza, jaiak, hitzaldiak, bertsolaritza, azokak, ikus-entzunezko emanaldiak, ikastaroak/tailerrak, lehiaketak, jaialdiak, haur jarduerak, bestelakoak

## AZTERTUTAKO EPEALDIA

**2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra**  
bitartean antolatutako ekitaldiak

## AZTERTUTAKO LURRALDEAK

**Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa**

## DATUEN AZTEKERTA ETA KOORDINAZIO TEKNIKOA

Kualitate Lantaldea (Kulturklik taldea)



# OHAR METODOLOGIKOAK

## ERAKUSKETAK

- Aztertutako erakusketak erreferentziazko epealdian (2023ko lehen hiruhilekoa) inauguratutakoak dira, haien amaiera data edozein dela ere. Aldiz, ez dira kontuan izan urtarrila eta martxoa bitartean jendearentzat irekita zeuden arren 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen inauguratu ziren erakusketak.

## IKUS-ENTZUNEZKO EMANALDIAK

- Kulturklien ez dira jasotzen EAEko zinema areto guztietako film komertzialen emanaldiak. Honako hauek baino ez dira argitaratzen Kulturklikeko agendan: euskal filmen emanaldiak EZAren zinema areoetan, euskarazko filmen emanaldiak (Zinema Euskaraz) eta programa bereziak (zinema zikloak, zineforumak eta/edo zineklubak, esaterako).

## HAUR JARDUERAK

- Haur jarduerak ikuspegi orokor batetik aztertu dira, jarduera tipologiaren arabera, baina azterketa sektorialetatik kanpo geratu dira, ezin izan direlako kategorizatu kontzertu, antzerki, dantza, bertso saio edo erakusketa gisa.

## PREZIOAREN ALDAGAIA

- **Kontzertuen eta antzerki eta dantza emanaldien prezioa soilik hartu da kontuan.** Ez da aztertu bertsolaritza ekitaldien eta erakusketen prezioa, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, doako ekitaldiak izaten dira kasu askotan (aire zabaleko bertso saioak eta kultur etxeetako edo udal espazioetako erakusketak doan izaten dira ia beti); bestetik, bi ekitaldi mota horietan, ordainpeko sarrerek ekitalditik haragoko beste jarduera batzuk ere barne hartzen dituzte maiz (adibidez, bertso afari edo bazkarietako sarrerek barne hartzen dituzte afaria edo bazkaria, eta museoetako sarrerek zentro jakin horren erakusketa eskaintza osoa bisitatzeko aukera ematen dute, erakusketa bakarrera mugatu ordez). Aztertutako unibertsoari dagokionez, **batez besteko prezioa kalkulatzeko**, ordainpeko kontzertuak eta dantza edo antzerki ikuskizunak baizik ez dira izan dira kontuan, hots, **kanpoan utzi dira doako ekitaldiak.**

## EMANALDIEN ARABERAKO AZTERKETA

- Estatistika helburuekin, formatu txikiko antzezlanak programatutako egunen arabera zenbatu dira, eta ez egindako emanaldien arabera.

# 2. Ekitaldien azterketa

---

EAEko kultura jardueraren laburpena:  
2023ko urtarrilak 1-martxoak 31





# DATUEN LABURPENA

Kulturklikeko agendan jasotako datuen arabera, 3.864 kultura ekitaldi egin dira EAEn urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean.

# 3.864 ekitaldi

2023ko lehen hiruhilekoan

# 3.709 ekitaldi

2022ko lehen hiruhilekoan


+% 4





# EKITALDIEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA

1. grafikoa: Ekitaldien banaketa, motaren arabera



Ekitaldi motaren araberako azterketak erakusten du **kontzertuek (% 30) izan dutela presentzia handiena**: epealdi osoko hamar ekitalditik hiru kontzertuak izan dira.

Bilakaerari dagokionez, kontzertuez gain, **bertso saioak, ikus-entzunezko emanaldiak eta erakusketak ere ugartu** egin dira; aldiz, **behera egin dute antzerkiak, haur jarduerak eta hitzaldiek**, eta **dantzak** antzeko zenbakiei eutsi die.

\*Jaiak, Lehiaketak, Jaialdiak, Ikastaroak/Tailerrak eta Azokak



# 3. Kontzertuak

2023ko lehen hiruhilekoan EAEn  
izandako kontzertuen azterketa





# KONTZERTUAK: EKITALDIAK, TALDEAK ETA SARREREN PREZIOA

**1.162**  
kontzertu

**1.618**  
talde

2023ko lehen hiruhilekoan, EAEn izan diren 1.162 kontzertu jaso dira Kulturkliken; 1.618 musika taldek hartu dute parte kontzertu horietan.

Kontzertuen % 28n talde batek baino gehiagok parte hartu du.

Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 13,1 eurokoa izan da.


**13,1€**

sarreraren batez besteko prezioa



# KONTZERTUEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

2. grafikoa: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera (%)



1. taula: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	KONTZERTUAK, 100.000 biztanleko
BIZKAIA	46
GIPUZKOA	65
ARABA	53

Kulturklien jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien **ia erdiak (% 45,2) Bizkaian** izan dira, % 39,8 Gipuzkoan eta % 15 Araban.

Hala ere, kontzertuen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulaturik, **Gipuzkoa da kontzertu gehien programatu duen lurraldea**: 65 ekitaldi 100.000 biztanleko.



# KONTZERTUEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

2. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	KONTZERTUAK %
EUSKARA	27,5
GAZTELANIA	20,4
HIZKUNTZA GABE	19,6
HAINBAT HIZKUNTZA *	13,4
INGELESA	12,3
BESTE BATZUK	0,3
EZEZAGUNA	6,5

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, **euskara izan da hizkuntza erabiliena** 2023ko lehen hiruhilekoan EAEn izandako **musika emanaldietan**: kontzertuen % 27,5 euskaraz izan dira. **Gaztelania** izan da bigarren hizkuntza erabiliena (% 20,4).

**Hizkuntza gabeko musika ekitaldiak** (musika klasikoa, talde instrumentalak...) kontzertu guztien % 19,6 izan dira. Azkenik, kontzertuen % 13,4k hainbat hizkuntza hartu dituzte barnean, eta % 12,3 ingelesez izan dira.

\* Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek ekitaldi beraren barruan ematen dituzten kontzertuak dira gehienbat



# KONTZERTUEN BANAKETA, MUSIKA GENEROAREN ARABERA

3. taula: Kontzertuen banaketa, musika generoaren arabera (%)

	KONTZERTUAK %
MUSIKA GARAIKIDEA (pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a, jazz-a, funk-a, fusio musika, reggaea...)	77,3
MUSIKA KLASIKOA	12,7
EUSKAL MUSIKA HERRIKOI ETA TRADIZIONALA	3,4
MUSIKA ESPIRITUALA (erlijiosoa, korala, gospela...)	3,0
MUNDUKO MUSIKAK	2,1
BESTE BATZUK	1,5

Musika generoari dagokionez, musika emanaldi gehienak (% 77,3) musika garaikidekoak izan dira.

Dezente gutxiago izan dira musika klasikoko emanaldiak: kontzertu guztien % 12,7.

Are gutxiago izan dira euskal musika herrikoi eta tradizionalekoak (% 3,4) eta musika espiritualekoak (% 3).

Azkenik, zuzeneko musika ekitaldien % 2,1 munduko musikekin lotuta egon dira.

# 4.Antzerkia

2023ko lehen hiruhilekoan EAEn  
izandako antzerki ekitaldien azterketa





# ANTZERKIA: EKITALDIAK, EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

578  
ekitaldi

739  
emanaldi

2023ko lehen hiruhilekoan, EAEko 578 antzerki ekitaldi jaso dira Kulturkliken.

Urtarrila eta martxoa bitartean argitaratutako 578 antzerki ekitaldien % 15en emanaldi bat baino gehiago izan dira.

Ordainpeko antzerki ekitaldi bakoitzaren batez besteko prezioa 11,6 eurokoa izan da.


11,6€  
sarrerren batez besteko prezioa





# ANTZERKI EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

3. grafikoa: Antzerki emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

4. taula: Antzerki emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ANTZERKI EMANALDIAK, 100.000 biztanleko
BIZKAIA	33
GIPUZKOA	42
ARABA	20

Kulturklien jasotako antzerki emanaldien banaketa lurraldearen arabera aztertuta, guztien **erdiak (% 50,6) Bizkaian** izan dira, % 40,3 Gipuzkoan eta % 9,1 Araban.

Hala ere, emanaldien banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulatuta, **Gipuzkoa da antzerki gehien programatu duen lurraldea: 42 emanaldi 100.000 biztanleko.**



# ANTZERKI EMANALDIEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

5. taula: Antzerki emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	ANTZERKI EMANALDIAK %
GAZTELANIA	57,8
EUSKARA	35,2
HAINBAT HIZKUNTZA *	2,8
BESTE BATZUK	2,2
HIZKUNTZA GABE	2,0

Hamar antzerki emanalditik ia sei (% 58) gaztelaniaz izan dira; % 35,2, euskaraz.

Emanaldien % 2,2 beste hizkuntza batzuetan izan dira (italieraz, alemanez eta frantsesez, batez ere).

Azkenik, emanaldien % 2 testurik gabeak izan dira (maskara antzerkia, keinu antzerkia...).

Aldi berean hizkuntza bat baino gehiago darabilten antzezlanen emanaldiak edo hizkuntza ezberdinetako emanaldiak dituzten antzerki ekitaldiak



# ANTZERKI EMANALDIEN BANAKETA, ANTZERKI GENEROAREN ARABERA

6. taula: Antzerki emanaldien banaketa, antzerki generoaren arabera (%)

	ANTZERKI EMANALDIAK %
TESTU ANTZERKIA	79,3
ANTZERKI MUSIKALA	11,9
ZIRKUA	2,4
MAGIA	2,3
BESTE BATZUK	2,0
ANTZERKI LIRIKOA	1,9
KALE ANTZERKIA	0,1

Antzerki generoari dagokionez, 2023ko urtarrila eta martxoa bitartean EAEn izandako **emanaldien % 79,3 testu antzerki motakoak** izan dira.

Kulturklikeko agendan emanaldi kopuru handiena izan duen bigarren antzerki generoa **antzerki musikala** izan da (**% 11,9**).

Hirugarren maila batean geratu dira **zirkua** (% 2,4), **magia** (% 2,3) eta **antzerki lirikoa** (% 1,9).

# 5. Dantza

---

2023ko lehen hiruhilekoan EAEn  
izandako dantza ekitaldien azterketa





# DANTZA: EKITALDIAK, EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

**120**  
ekitaldi

**135**  
emanaldi

2023ko lehen hiruhilekoan, EAEko 120 dantza ekitaldi jaso dira Kulturkliken.

Urtarrila eta martxoa bitartean argitaratutako 120 dantza ekitaldien % 12n emanaldi bat baino gehiago izan dira.

Ordainpeko dantza ekitaldi bakoitzaren batez besteko prezioa 16 eurokoa izan da.


**16€**

sarrerren batez besteko prezioa



# DANTZA EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

4. grafikoa: Dantza emanaldien banaketa, lurraldearen arabera (%)



7. taula: Dantza emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	DANTZA EMANALDIAK, 100.000 biztanleko
BIZKAIA	6
GIPUZKOA	8
ARABA	2

Dantza emanaldi guztien **erdiak baino gehiago** (% 52,6) Bizkaian izan dira, % 43,0 Gipuzkoan eta % 4,4 Araban.

Hala ere, dantza emanaldien banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulaturik, **Gipuzkoa da dantza gehien programatu duen lurraldea**: 8 emanaldi 100.000 biztanleko.



# DANTZA EMANALDIEN BANAKETA, DANTZA GENEROAREN ARABERA

8. taula: Dantza emanaldien banaketa, dantza generoaren arabera (%)

	DANTZA EMANALDIAK %
DANTZA GARAIKIDEA	63,7
DANTZA TRADIZIONALA	26,7
BALLET KLASIKOA	5,2
BESTE BATZUK	4,4

**Dantza garaikidea** izan da EAEko agertokietan emanaldi gehien izan duen dantza generoa, guztien % 63,7. **Dantza tradizionala** izan da bigarrena, emanaldien % 26,7rekin.

Azkenik, dantza emanaldien % 5,2 **ballet klasikokoak** izan dira. % 4,4, aldiz, "**beste batzuk**" moduan sailkatu dira; aretoko dantzekin lotutako ekitaldiak izan dira, batez ere.

# 6. Bertsolaritza

---

2023ko lehen hiruhilekoan EAEn  
izandako bertso ekitaldien azterketa








# BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA LURRALDEAREN ARABERAKO BANAKETA

# 199

## bertso saio

2023ko lehen hiruhilekoan, EAEko **199 bertso saio** jaso dira Kulturkliken.

5. grafikoa: Bertso saioen banaketa, lurraldearen arabera (%)



9. taula: Bertso saioen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko


	BERTSO SAIOAK, 100.000 biztanleko
BIZKAIA	5
GIPUZKOA	16
ARABA	8

Kulturkliken jasotako bertso saioen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko nabarmen handiagoa da Gipuzkoan** (16 ekitaldi 100.000 biztanleko), Araban (8) eta Bizkaian (5) baino.



# 7. Erakusketak

2023ko lehen hiruhilekoan EAEn  
izandako erakusketen azterketa




# ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA LURRALDEAREN ARABERAKO BANAKETA

# 319

## erakusketa

2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, **319 erakusketa** inauguratu dira EAEn.

6. grafikoa: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera (%)



10. taula: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ERAKUSKETAK, 100.000 biztanleko
BIZKAIA	14
GIPUZKOA	14
ARABA	17

Erakusketen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko berdina** izan da **Bizkaian eta Gipuzkoan** (14 erakusketa). **Araban**, aldiz, **datua altuagoa** izan da: han 17 erakusketa inauguratu dira 100.000 biztanleko.